



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

ESKUALDEAK

II. ERANSKINA: ESKUALDE ERALDAKETA

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



OHARRAK:

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak joratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatioan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.



Helburua

HAUTAGARRITASUNA

Proiektuaren kokapena “Gipuzkoaren sustapen ekonomikoa eskualde ikuspuntuaren ekarpenaren bidez bultzatzeko programa” arautzen duen 2017ko maiatzaren 2an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren II. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Hartzaileak (pertsonek, entitateek eta/edo enpresak)
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Zer eragin izango dute garatuko diren ekintzak ekonomia sustatzeko estrategia eta programetan.
- Zer eragin izango dute garatuko diren ekintzak kalitatezko enpleguak sortzeko
- Zer eragin izango dute garatuko diren ekintzak garapen ekonomiko-sozialeko eredu jasangarri batean
- Aplikazio eremua



Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Erabiliko den metodologia
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak

NORK

- Proiektuan parte hartuko duten erakundeen deskribapena:
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta bitarteko materialak.



Garatuko den proiektua txertatu/barneratuta/landu eduki beharko lituzke, besteak beste:

- Proiektuaren bat egitea lurraldeko, eskualde/tokiko eta/edo sektoreko garapenerako estrategiarekin
- Izaera eraldatzailea: esperimentazioa jomuga izatea, proiektuaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Ikasitakoa eta praktika onak indarrean jartzea, aprobetxamendua eta aurreko esperientzietako emaitzak kontuan izatea (erakundearenak nahiz kanpokoak)
- Pertsona, entitate, enpresen zehaztapena (irizpideak, pertsona kopurua...)
- Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Entitate parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, barruko nahiz kanpoko elkarlana, arloen artekoa eta garatuko diren prozesu parte-hartzaileak edo parte hartzeko ereduak, sektore publikoa eta pribatuaren parte hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia....
- Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean
- IKTak txertatzeko modua proiektuan
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta erakundeak (planak, eta abar), zein esperientzia, erakundea jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Proiektua garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan egingo dio ekarpena proiektuak euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Bideragarritasun ekonomikoa jarduketa garatzeko
- Garatuko den jarduketaren jasagarritasuna
- Erakunde, gizarte, lurralde balioztapena



Barne pertsonala

BARNE PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten enpresaren pertsonak erantsi aplikatibora

KANPO PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora



Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana



Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak